

ESKOLA KIROLAREN IKUSLE ZINTZOAREN DEKALOGOA

HEZITZAILEAK HEZITZEN

1. Haurrek ez dute jokatzeko ikusleek gozatzeko, ezta lehenengo gelditzeko ere, kirola eginez ondo pasatzeko eta pertsona gisa formatzeko baizik. Ez ezazu ahaztu !
2. Txalotu partaide guztien ahalegina eta jarduera egokia. Garrantzizkoena ez da emaitza.
3. Ez egin errieta huts egiten badu. Ikasten ari dira!. Egin komentario positiboak; horiek bai emango diotela adorea.
4. Errespetuz hartu jarduerako partaide guztiak: ikasleak, entrenatzaileak, epaileak eta ikusleak. Den-denak dira ezinbestekoak!
5. Seguru asko hainbat ezagutza izango dituzu, baina ez ibili zer egin behar duten agintzen, eman jardueraz gozatzeko eta beren erabakiak hartzeko askatasuna!
6. Errespetatu epaileen erabakiak eta animatu ikasleak gauza bera egitera, baita finkatutako araudiaren arabera jardutea ere.
7. Baztertu indarkeria eta portaera desegokiak, ikusleenak nahiz edozein partaiderenak.
8. Jarduera bukatutakoan, nabarmendu benetan garrantzizkoak diren gauzak, hau da, norberaren eta taldearen bilakaera, eta ez emaitza.
9. Bultzatu gainerako ikusleak ere arau hauek betetzera; jarduera onuragarriagoa izango da guztiontzat.
10. Kontuan izan zure jarduera eredutzat hartuko dutela seme-alabek.
Izan zaitetz eredugarri !!!